

zuzenketa

zuzenketa

Entzunaren ulermena

1. ariketa

1. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan emandako albistea entzungo duzu. Bertan, erretzeari buruzko moduak aztergai dira.

Entzungaia **behin** entzungo duzu. Entzutun duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Aukeratu erantzun zuzena:

1. Erretzeari uzteko metodo batzuk badaude:
 - a) Nikotinarekiko adikzioa kentzen batere laguntzen ez dutenak.
 - b) Nikotinarekiko adikzioa poliki-poliki kentzen laguntzen dutenak.**
 - c) Nikotinarekiko adikzioa denbora gutxian kentzen laguntzen dutenak.

2. Metodo horiek erretzeari uzteko erabiltzen dituzte, baina...
 - a) Metodo horiei esker, erretzaileen % 60k lortzen dute erretzeari uztea.
 - b) Metodo horiei esker, erretzaileen % 70k edo ez dute lortzen uztea.**
 - c) Metodo horiei esker, erretzaileen % 70ek lortzen dute uztea.

3. Zientzialariek ikusi dute:
 - a) Erretzaile bakoitzaren beharrak eta metodoen ezaugarriak berdinak direla.
 - b) Metodo horiek guztiak eta erretzaileen beharrak antzekoak direla.
 - c) Metodo horiek guztiak eta erretzaileen beharrak ezberdinak direla.**

4. Metodo horien ezaugarriak honakoak dira:
 - a) Partxeek gorputzari nikotina-dosi berdina ematen diote denbora laburrez, zigarroak bezalaxe.
 - b) Txikleak gorputzari nikotina-dosi txikia ematen diote denbora luzez, espraiek bezalaxe.
 - c) Txikleen ondorioak, zigarroenak bezalaxe, motzak dira.**

5. Ikerketaren ondorioak hauexek dira:
 - a) Nikotina-partxeak hobeak dira pisu gutxikoentzat, arraza zurikoentzat eta dependentzia handia dutenentzat.
 - b) Txikleak eta hobeak dira lodiago daudenentzat, dependentzia handia dutenentzat eta arraza beltzekoentzat.
 - c) Erretzaileak errazago eta hobeto utziko dio erretzeari bere ezaugarri eta beharren arabera metodoa aukeratzen badu, ez baitituzte ondorio berdinak.**

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

1	B	2	B	3	C	4	C	5	C
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---

zuzenketa

zuzenketa

Entzunaren ulermena

2. ariketa

2. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan emandako albistea entzungo duzu. Bertan, Jaungoikoa auzitara eraman nahi dutela entzungo duzu

Entzungaia **behin** entzungo duzu.

Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi laukian, adibidean egiten den bezala, entzundakoa testuan esaten dena baldin bada.

0. Preso batek Jainkoa auzitara eraman nahi du.
1. Jainkoa auzitara eraman nahi du deabruaren esku utzi duelako.
2. Hogei urteko kartzela zigorra betetzen ari da ehiza-hilketa batengatik.
3. Auzitara eraman nahi du Jainkoa, baina ez bere ordezkaria den Eliza Ortodoxo Erromatarra.
4. Eroskeria onartzeagatik, estafengatik, ezkutatzeagatik, influentzia trafikoarengatik eta jendearen interesen aurkako gehiegikeriarengatik eraman nahi du Jainkoa auzitara.
5. Presoak dio Bataioa Jainkoaren eta bere arteko kontratua izan zela.
6. Berak dio kontratuan sinatu zuela deabruaren esku ez zuela utziko.
7. Presoak adierazi du Jainkoak hainbat otoitz eskatu zizkiola bere eskariak lortzeko, baina Jainkoak ez duela bere promesa bete.
8. Jainkoa auzitara eramateko eskaera kartzelako zuzendariarengana eta Fiskal Nagusiarengana iritsi da.
9. Justizia arduradunek esan dute epaiketa hori ez dutela egiterik izango.
10. Justizia arduradunek azaldu dute, akusatua deitzeko aukerarik izango balute, auzitegira etorraraziko luketela.

zuzenketa

zuzenketa

Irakurriaren ulermena

1. ariketa

1. TESTUA

Josu Iztuetak Argia aldizkarian sagardotegien inguruan idatzitako artikulu baten zatia irakurriko duzu. Irakurri ondoren ondoko galderetan erantzun egokia aukeratu beharko duzu.

ARGIA

Txotxeatzen

JOSU IZTUETA

Erantzunak:

1	c	2	a	3	b	4	c	5	a
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---

zuzenketa

zuzenketa

Irakurriaren ulermena

2. ariketa

2. TESTUA

BERRIA egunkariak kanpaina bati buruzko albistea ekarri du. Irakurri testua eta ondoren agertzen diren hiru paragrafoetatik aukeratu **laburpen** egokia eta idatzi **letra** beheko esaldian.

BERRIA: Garaian garaikoak

1. **EGITEKOA:** Aukeratu hiru paragrafoetatik laburpen egokia eta idatzi beheko laukian:

Testuaren laburpen egokia b da.

2. **EGITEKOA:** Zer esan nahi dute ondoko adierazpenek? Irakurri duzun berriaren testuingururako zure ustez egokiena dena aukeratuko duzu.

Erantzunak:

1	c	2	a	3	d	4	a
----------	----------	----------	----------	----------	----------	----------	----------

Zuzenketa:	Puntuazioa: 20 puntu
1.testua: 1c 2a 3b 4c 5a	1. testua: erantzun zuzen bakoitzeko 2 puntu
2.testua:	2. testua:
1. egitekoa: B	1.egitekoa: erantzun zuzena: 4 puntu
2. egitekoa: 1c 2a 3d 4a	2.egitekoa: erantzun zuzen bakoitzeko 1.5 puntu

zuzenketa

zuzenketa

Idazmena

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

- Idazmena zuzentzeko irizpideak

IKUSPEGI OROKORRA. Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA) Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu motari dagokion egitura.

ZUZENTASUNA. Mailari dagokion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.

Eskatu zaion egitekoa gainditzeko ezinbestean gutxieneko bat lortu behar du, gaitasun komunikatiboa osatzen duten azpigaitasun bakoitzean (gaitasun sozio-prakmatikoa, estrategikoa, linguistikoa eta testuala) edo ebaluazio irizpide bakoitzean

- Idazmena zuzentzeko oharrak

Akatsak ikusten direnean, **ez jarri markarik testuan.** Azterketaren ertza erabili laburdurak edo zeinuak idazteko. Arkatza erabili.

Ez azpimarratu eta ez biribildu akatsa. Alboko ertzean jarri zeinua.

Zati luze eta traketsak ertzean marra bertikala jarrita seinalatu.

Ez jarri zuzenketarik edo azalpenik idazlanean, are gutxiago iritzi edo iruzkinik.

Ez ezer azpimarratu.

Idazlanaren ertzetan laburdura hauek erabil litezke akats aipagarrientzat edo aztertzaileak asmatutakoak:

? ulergaitza, √ zerbait falta da, **dek** deklinabidea, **ad** aditza, **lex** lexikoa, **punt** puntuazioa, **sint** sintaxia, **erl** erlatibozkoa, **zg** zehar galdera, **nom** nominalizazioa, **konp** konparaziozkoa, **konpl** konpletiboa, **bal** baldintzazkoa, **ord** hitzen ordena, **kom** komunztadura, **lok** lokailua.

Kontuan izan ebaluazio irizpideak eta, irizpide bakoitza baloratu ondoren, hau da, ikuspegi orokorra, baliabide linguistikoak eta testuaren zuzentasuna, jarri azken emaitza.

Gehienez, **30** puntu. Gainditzeko, gutxienez, **15**.

Ebaluazio orrian idatzi balorazioa eta puntuazioa, ez azterketan.

Ongi arrazoitu jarritako puntuazioa, batez ere ez gai baldin bada.

Birzuzenketak

Aztertzaileak zalantza handiak baditu azterketa bati puntuazioa ematerakoan, hala adieraziko du eta birzuzenketa eskatuko du (ebaluazio-fitxan idatzita). Bere emaitza jarriko du, baina zalantzak dituela esango dio koordinatzaileari emaitzak eramaten dituenean. Azterketa hori beste aztertzaile bati emango zaio berriz zuzentzeko.

zuzenketa zuzenketa

MINTZAMENAREN IRIZPIDEAK (iturria ISEI-IVEI 2005)

Hitz egiteko era

- *Autonomia*

Irizpide horrek ikasleen mintzamenaren independentzia neurtzen zuen, esate baterako, galderei erantzunak luzeak edo lakonikoak baziren, hitz egiteko laguntza behar bazuen ala ez, etab.

- *Interakzioa*

Irizpide horrek balio izan du ebaluatzeko komunikazioaren oinarrizko arauak erabiltzen zituen, hala nola, hitza hartu, hitza eman, entzundakoari jarraitu eta abar.

- *Hitz jarioa*

Irizpide horrek hitz egiteko erraztasunaz informazioa ematen zuen. Diskurtsoaren abiadura kontuan hartzen zuen, diskurtsoaren luzaera, izaten ziren hizkuntza zalantzak, geldiuneak eta hitzaldiaren kohesioa.

- *Ahoskera*

Hitzen ebakera eta esaldien doinua ebaluatzen zuen eta, ahoskera dela medio, ea arazoak zeuden mintzaldia ulertzeko.

Diskurtsoari dagokion trebetasuna

- *Adierazpen maila*

Kontzeptu orokor horrekin ulergarritasuna neurtzen zen. Hitzuna testuinguruan egoki kokatzen den egiaztatzen zen bai eta ideiak ongi antolatzen zuen mintzaldian. Diskurtsoaren koherentzia oro har ebaluatzen zen.

- *Lexikoa*

Hiztegi egokia, aberatsa eta zuzena ebaluatzen zen irizpide honen bidez.

Zuzentasuna

- *Gramatika eta Sintaxia*

Irizpide horrek kategoria gramatikalak zein egitura sintaktikoak ebaluatzen zituen: kasuak, aditzen denborak, aditz laguntzaileak, esaldi bakunak edo konplexuak, loturak, etab.

Irizpide bakoitzak bost maila zituen: oso ongi, ongi, nahikoa, gutxi eta oso gutxi.